BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

# ALDIZKARI OFIZIALA

# BOLETIN OFICIAL

XII LEGISLATURA | XII. AGINTALDIA

Serie B Información, control e impulso | Informazinoa, kontrola eta sustapena B Saila

XIX Moción derivada de Interpelación | Itaunetik eratorritako Mozinoa XIX

Número 7b | Bilbo, 2024ko otsailaren 23a | Bilbao, 23 de febrero de 2024 | 7b alea

**ASUNTO:** Medidas para garantizar el derecho del niño y la niña a que su interés superior sea considerado primordial.

**AUTOR:** De Madariaga Martin, Eneritz

**Enmiendas: Admisión a trámite**

La Mesa de las Juntas Generales, en su sesión de fecha 20 de febrero de 2024, con relación al asunto de referencia, adoptó los siguientes Acuerdos:

**Tramitación:** Admitir a trámite.
**Calificación:** Conformidad con la calificación propuesta por el autor
**Órgano Destino de Tramitación:** Pleno

**Otros acuerdos**
Ordenar Publicación en el BOJJGG
Ordenar traslado a los efectos de lo previsto en la regulación aplicable

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 92 del Reglamento de la Cámara, se ordena su publicación para general conocimiento.

Sede de las Juntas Generales de Bizkaia, en Bilbao, 20 de febrero de 2024.- La Presidenta de las Juntas Generales, **Ana Otadui Biteri**

**GRUPO NACIONALISTAS VASCOS**
**GRUPO SOCIALISTAS VASCOS**

Jesus Lekerikabeaskoa Arrillaga, portavoz del Grupo Juntero EUZKO ABERTZALEAK-Nacionalistas Vascos y Goyo Zurro Tobajas, portavoz del Grupo Juntero SOCIALISTAS VASCOS, al amparo del vigente reglamento, presentan la siguiente ENMIENDA A LA TOTALIDAD a la MOCIÓN derivada de interpelación del grupo Elkarrekin Bizkaia sobre las medidas para garantizar el derecho del niño y la niña a que su interés superior sea considerado primordial.

**ENMIENDA UNICA**

Texto que se propone:

Las Juntas Generales de Bizkaia instan a la Diputación Foral de Bizkaia a que:

1.- En su compromiso con la infancia, adopte los procesos CRIA y CRIE como herramienta de trabajo, empezando a aplicar estas herramientas en el Departamento de Acción Social para sistematizar la determinación y evaluación del interés superior

**GAIA:** Umeen interes gorena funtsezkotzat joteko eskubidea bermatzeko neurriak

**EGILEA:** De Madariaga Martin, Eneritz

**Zuzenketa-eskeak: Izapidetzeko onartzea**

Aitatutako gaia dala-ta, hurrengo Erabagiak hartu ditu Batzar Nagusietako Mahaiak 2024ko otsailaren 20an izandako bileran:

**Izapidea:** Izapidetzeko onartzea
**Sailkapena:** Egileak proposatutako sailkapenagaz ados

**Organo hartzailea:** Osokoa

**Beste erabagi batzuk**
BBNAn argitaratzeko agintzea
Bialtzeko agintzea, araudi aplikagarriak aurreikusitakoaren ondorenetarako

Guztiak horren jakitun egon daitezan, argitaratzea agintzen da, Batzar Nagusien Araudiaren 92. artikuluan zehaztutakoaren arabera.

Bilbon, Bizkaiko Batzar Nagusietako egoitzan, 2024ko otsailaren 20an.- Batzar Nagusietako Lehendakaria, **Ana Otadui Biteri.**

**EUZKO ABERTZALEAK TALDEA**
**EUSKAL SOZIALISTAK TALDEA**

Jesus Lekerikabeaskoa Arrillaga EUZKO ABERTZALEAK-Nacionalistas Vascos taldeko taldeburuak eta Goyo Zurro Tobajas EUSKAL SOZIALISTAK taldeko taldeburuak, indarrean dagoan araudiaren arabera, OSOTASUNEZKO ZUZENKETA-ESKE hau egiten deutsie umeen interes gorena funtsezkotzat joteko eskubidea bermatzeko neurriei buruz Elkarrekin Bizkaia taldeak aurkeztutako itaunetik eratorritako MOZINOARI.

**ZUZENKETA-ESKE BAKARRA**

Proposatzen dan testua:

Bizkaiko Batzar Nagusiek Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen deutsie:

1.- Umeakazko daukan konpromisoaren baitan, CRIA eta CRIE prozesuak lan-tresnatzat hartzea, eta tresna horreek Gizarte Ekintza Sailean apliketan hastea, adinbakoen interes gorenaren ezarpena eta ebaluazinoa sistematizateko. Horrela, umeen

del menor, facilitando así la incorporación de la perspectiva de los derechos de la infancia a las políticas públicas del departamento.

2.- En consecuencia, instamos a que el Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia establezca un proceso piloto paulatino de despliegue, que recoja una fase de diagnóstico, un procedimiento de evaluación de impacto centrados en los derechos de los niños y niñas, y una valoración interanual del proceso, para que posteriormente y con los aprendizajes de la experiencia, se pueda ir trasladando al resto de los departamentos de la Diputación Foral de Bizkaia.

JUSTIFICACION

La Diputación Foral de Bizkaia, en su compromiso por incorporar la perspectiva de las personas y/o colectivos para los que trabaja; mujeres, personas mayores, personas en situación de vulnerabilidad, etc. ha ido creando instrumentos y foros de comunicación, cogobernanza e interlocución directos como el Consejo de Personas Mayores de Bizkaia o el Consejo de Igualdad.

En el ámbito de la infancia, se hace necesario dar un paso adelante y para ello es importante establecer un proceso para conocer cuál es la situación de partida de nuestra institución, es decir realizar un diagnóstico, establecer un procedimiento de evaluación de impacto centrados en los derechos de los niños y niña, y finalmente realizar una valoración interanual del proceso.

En términos procedimentales, para valorar el interés superior del niño y la niña, el Comité de Naciones Unidas recomienda aplicar el sistema CRIA para asegurar que todo proceso de toma de decisiones identifica y sopesa el posible impacto que la decisión o acción sometida a consideración puede tener sobre el niño o niños potencialmente afectados.

Los procedimientos de evaluación de impacto centrados en los derechos de los niños y niñas permiten controlar sistemáticamente el impacto que cualquier propuesta o medida puede suponer para sus derechos, necesidades e intereses. Se trata de un proceso concebido como un continuo, de la evaluación de impacto (CRIA, Child Rights Impact Assessment) a la revisión y análisis del impacto efectivo (CRIE, Child Rights Impact Evaluation).

La evaluación de impacto sobre los derechos de niñas, niños y adolescentes (CRIA) examina el impacto potencial que sobre los mismos pueden tener las normas, políticas, decisiones presupuestarias, programas y servicios tal como se estén planteando y, en caso de ser necesario, sugiere mecanismos para evitar o mitigar eventuales impactos negativos. La evaluación de impacto se realiza con carácter previo a la aplicación de la propuesta o medida en cuestión.

El análisis de impacto sobre los derechos de niñas, niños y adolescentes (CRIE) examina los efectos -tanto previstos como no previstos- que los cambios normativos, decisiones presupuestarias, políticas, programas o servicios han tenido sobre los derechos de niños y niñas. De este proceso pueden resultar también propuestas de mejora para garantizar que las medidas en cuestión respetan tales derechos y cumplen con la Convención de Naciones Unidas sobre los Derechos del Niño. La valoración de impacto se lleva a cabo después de aplicarse la propuesta o medida en cuestión.

Ambos procesos (CRIA y CRIE) se centran en examinar cómo pueden afectar a los derechos de niños y niñas las decisiones y acciones de los gobiernos, instituciones y otros agentes en los ámbitos del Derecho, la política pública y la práctica administrativa. El impacto se mide conforme a los estándares que establece la Convención de Naciones Unidas sobre los Derechos del Niño, sus protocolos facultativos y otros tratados internacionales de derechos humanos.

Bilbao, 19 de febrero de 2024

**Jesús Lekerikabeaskoa Arrillaga,**
Portavoz del grupo Nacionalistas Vascos

**Goyo Zurro Tobajas,**
Portavoz del grupo Socialistas Vascos

eskubideen ikuspegia txertatuko da saileko politika publikoetan.

2.- Ondorioz, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailari eskatzen deutsagu hedatze-prozesu pilotu bat ezarteko –diagnostiko-fasea, umeen eskubideen ganeko eragina ebaluetako prozedurea eta prozesuaren urtetik urterako balorazinoa izango ditu prozesu horrek–, gerora eta esperientzia horretatik ateratako ikaskuntzakaz Bizkaiko Foru Aldundiko ganerako sailetara hedatu daiten.

ERRAZOIKETEA

Bizkaiko Foru Aldundia, xede dituan pertsona eta/edo kolektiboen ikuspegiak (emakumeak, adinekoak, zaurgarritasun-egoeran dagozan pertsonak) txertatzeko daukan konpromisoaren baitan, komunikazinorako, gobernantza partekaturako eta solaskidetza zuzenerako tresnak eta foroak sortzen joan da; besteak beste, Bizkaiko Adinekoen Kontseilua eta Berdintasun Kontseilua.

Umeei jagokenez, beharrezkoa da aurrerapauso bat emotea, eta horretarako, garrantzitsua da gure instituzinoaren abiapuntuko egoerea zein dan ezagutzeko prozesu bat ezartea. Hau da, diagnostiko bat egitea, umeen eskubideen ganeko eragina ebaluetako prozedurea finkatzea eta, azkenik, prozesuaren urtetik urterako balorazinoa gauzatzea.

Prozedureari erreparatuta, Nazio Batuen Batzordeak CRIA sistemea erabiltzeko gomendatzen dau umeen interes gorena ebaluatu eta erabagiak hartzeko prozesu danetan hartzen dan erabagi edo gauzatzen dan ekintza bakoitzak umeengan euki leiken eragina identifikau eta analizaten dauela bermatzeko.

Umeeen eskubideen ganeko eraginean zentrautako ebaluazino-prozedurek aukerea emoten dabe edozein proposamen edo erabagik umeen eskubideetan, beharrizanetan eta interesetan euki leiken eragina sistematikoki kontroletako. Prozedura jarraitua da: eraginaren ebaluazinotik (CRIA, Child Rights Impact Assessment) berrikuspenera eta benetako eraginaren analisira (CRIE, Child Rights Impact Evaluation) igarotzen da.

Umeen eta nerabeen eskubideen ganeko eraginaren ebaluazinoak (CRIA) planteetan diran arauek, politikek, aurrekontu-erabagiek, programek eta zerbitzuek eurengan euki leiken eragina aztertzen dau, eta, beharrezkoa bada, eragin negatiboak saihesteko edo murrizteko mekanismoak proposatzen ditu. Eraginaren ebaluazinoa jagokon proposamena edo neurria aplikau aurretik egiten da.

Umeen eta nerabeen eskubideen ganeko eraginaren analisiak (CRIE) arauek, politikek, aurrekontu-erabagiek, programek eta zerbitzuek umeen eskubideetan eukitako eraginak –aurreikusita eta aurreikusi barik egozanak– aztertzen ditu. Prozesu horretatik be urten leitekez hobekuntza-proposamenak, hartutako neurriek eskubide horreek errespetetan dituela eta Nazio Batuen Haurren eskubideei buruzko Konbentzioan ezarritakoa beteten dabela bermatzeko. Eraginaren balorazinoa jagokon proposamena edo neurria aplikau aurretik egiten da.

Prozesu biek (CRIA eta CRIE) balio dabe gobernuek, instituzinoek eta Zuzenbidearen arloko, politika publikoko eta jardun administratiboko ganerako eragileek hartutako erabagi eta neurriek umeen eskubideetan euki leikezan eragina aztertzeko. Eragina Nazio Batuen Haurren eskubideen Konbentzioak ezartzen dituan estandarren arabera neurtzen da, baita konbentzino horretan jasotako aukerako protokoloetan eta giza eskubideen ganeko beste tratatu batzuetan ezarritakoen arabera be.

Bilbon, 2024ko otsailaren 19an

**Jesús Lekerikabeaskoa Arrillaga,**
Euzko Abertzaleak taldeko taldeburua

**Goyo Zurro Tobajas,**
Euskal Sozialistak taldeko taldeburua